

B

BARREN

TOKIKOM



Demarako gertu

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU

abenduaren **1**ean
donostia
17:00etan
anoeta estadioetik

manifestazioa

ELGOIBARTIK DONOSTIARA AUTOBUSA!
 Izenematea: azaroaren 29a arte. Non: Elgoibarko Izarran (Ubitarte 4, behe) edo
 komunikazioa@elgoibarkoizarra.com-en. Autobusa: 16:00etan irtengo da Kingkong-etik

ELGOIBAREN BIZIAREN ERAGILEAK
KONTSEILUA



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
 9:30-13:00 / 16:30-20:00
 San Bartolome, 10 - Elgoibar
 Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
 - Kontaktologia

Egunero:
 9:30-13:00 / 16:30-20:00
 San Frantzisko, 21 - Elgoibar
 Tel: 943 740 359

MASAJISTAK

22\12

VICTORIA IRAEGI

- Esku terapiak
 • Kiropraxia
 • Dranatzaille linfatikoa
 • Osteopatia
 • Kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea)

Astehenetik Ostiralera:
 8:00 / 14:00

San Frantzisko kalea, 40
 (atzealdea) - Elgoibar
 Tel.: 943 740 770

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
 - Estetika
 - Kirurgia eta inplanteak
 - Ortodontzia: haurrak eta helduak
 - Protesiak: finkoak eta eraginak
 - Odontologia orokorra
 - Higienea eta prebentzioa
 - Periodontzia (entzien tratamendua)
 - Haurrentzako tratamenduak
 - PADI

Elena Herrero Lobo
 Aita Agirre enparantza,
 5 behea - Elgoibar
 Tel: 943 530 053
 lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia **BERRIAI**
 - Tapoiak neurrira (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
 - Audiometriak
 - Audifonoak
 - Tonometria

Egunero:
 9:30-13:00 / 16:30-20:00
 San Frantzisko, 21 - Elgoibar
 Tel: 943 740 359



Aupa lagun!

Gaurkoan Harrera taldea zer den zuekin konpartitzera gatoz.

Gure laguna, neska, arreba, mutila, izeba, osaba, aita, ama... espetxean edo erbestean edukitzeak errepresioaren mila aurpegiak erakusten dizkigu. Kilometro amaigabeak, katxeoak, ozeanoa zeharkatzea, maite dugunaren ohea hutsik ikustea... milaka esperientzi, barren barrenean iltzaturik gelditzen zaizkigunak.

Baina badugu guzti horri aurre egiten dion sendagaia, bidea xamurtzen diguna, guztiaren gainetik, euskal herriaren eta euskal herritarren elkartasuna, maitasuna, daukagu. Hori da zutik mantentzen gaituena, bai gu eta baita etxean falta duguna ere.

Baina, preso eta erbestean egon denaren oztopoak ez dira etxeratzen direnean amaitzen. Une horretan, etxeko atea zeharkatzen duenean, egoera berrira egokitu behar izaten baita. Espetxean eta erbestean hainbat urte eman ondoren, askotan hamarkadak, utzi zuten gizarte-ingurunearen oso bestelakoa aurkitzen dute; askotan familiak desagertu edo murriztu egin dira. la guztiek galdu dute espetxeratu zituztenean zeukaten lanpostua, eta erretiroa hartzeko eskubidea emango liekeen kotizazioa ere.

Guzti honen aurrean euskal preso eta errefuxiatuak etxeratzen direnean laguntza eskainiko dion taldea sortzeko premia ikusi dugu.

Horixe da, hain zuzen Harrera Taldearen eginkizuna.

Horren aurrean badugu zer egina, orain arte bezala hemendik aurrera ere elkartasunez eta maitasunez gaudituko ditugu traba eta eraso guztiak.

Euskal gizartearen laguntza bilatzen dugu, geure eskakizuna giza eskubideen defentsaren esparruan sartzen delako. Gure herriak bake-etorkizunik badu, euskal preso eta errefuxiatuek aske, herrian guztiz integratuta, egon behar dutelako.

Guzti honetaz lasaiago hitz egiteko, Elgoibarren nola egin dezakegun eztabaidatzeko, elkartasun uholdeari gure ur tanta gehitzeko, Elgoibarren Harrera elkartearen aurkezpena egingo dugu hitzaldi baten bitartez, azaroaren 27an, 19:00etan, Kultur Etxeko sotoan.

Mari Juli Arregi eta Mikel Alberdi
Harrera taldearen izenean



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Elgoibarren azaroaren 27an, 19:00etan, egingo dugu
Harrera taldearen aurkezpena, Kultur Etxeko sotoan”**

IX. URTEURRENA

LOREA ETXABE AZKUE



*Edur zurittan hazittako
lore gorrixa ziñan.
Urtu eraitten zendun
inguruko hotza,
eta bedarra hazi erain.*

*Ez dogu gehixago
zure berua igarriko,
baiña hementxe gerauko da
zure arnasan aztarnia,
botatako sustraixen gaiñian.*

Zure familia eta lagunak



2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela. IX. urteurreneko meza, azaroaren 26an, astelehenean, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde zuretik.

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteberu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-
1.038/92 ISSN 1139-1855


Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Olentzeroren etxea dela eta

Atxutxiamaikak eta Ludotekak elkarlanean Olentzeroren etxera antolatutako irteeraren harira, gutun hau sinatzen dugunok zera adierazi nahi dizuegu: pena handia hartu dugula plazak bete zaizkigulako gurera etorri zaretan familia askori ezetza eman behar izateagatik. Aurten gertatu dena ikusita, datorren urtera begira hobetu beharrekoak hobetzeko konpromisoa hartu dugu. Etorriko da datorren urtea ere, eta izango dugu beste aukera bat. Hala ere, Olentzeroren etxera joan ezin izan duzuenok egon lasai, Olentzero eta Mari Domingi Elgoibarrera bertara etorriko direlako abenduaren 24an, zuen kontu eta kantuak entzute-
ra.

AtxutxiamaiKa Aisialdi Taldea- Elgoibarko Ludoteka. Elgoibarko Izarra ☪

Sortuz

Azaroaren 24an goizean goizetik ekingo diogu Elgoibarren ere Sorturen eratze prozesuaren eztabaidari. Otsaila bitarte luzatuko den prozesuan, izango da zer ikasi, zer entzun eta zer eztabaidatu. Eztabaida honetan ez goaz ildo bakoitzean zer plangintza eta zein bide egingo dugun zehaztera. Gehiago izango da nolako Sortu nahi dugun, nola antolatuko garen eta ildo eta helburu nagusiak zeintzuk izango dituen aztertzea. Gero etorriko da ildo bakoitzerako bidea zehazteko eta horretan hasteko edo sakontzeko ordua. Oraindik ponentzia eskuratu ez duenak <http://sortu.net>-en dauka eskura.

Sortu hasiera-hasieratik tresna izateko bokazioz jaio da, eta orain tresna hori ahalik eta indartsuen eta eraginkorren egitea dagokigu. Euskal Herri euskaldun, sozialista, feminista eta batez ere askea dugu helburu, eta hori lortzeko sortu dugu Sortu, baina baita gaur egunean hain gordin pairatzen dugun krisiari erantzuteko ere adibidez, eta honaino ekarri gaituztenei bidea mozteko. Euskal Herria dugu eraldatzeko, Euskal Herria dugu irabazteko. Herri-tarrak gara Sortu, eta herritarrekin kontatzen dugu aldaketa bururaino eramateko. Ateak irekita dituzue!

Elgoibarko Sorturen talde dinamizatzailea ☪

Euskaraz bizi nahi dugu!

Behean sinatzen dugun gizarte-eragileok euskaraz bizi nahi dugu, horixe delako gure hizkuntza. Euskara da natural sentitzen duguna; euskara da natural egiten duguna; eta euskarak egiten gaitu natural. Euskaldunak gara gaur, eta hala izan nahiko genuke bihar ere. Gure aurrekoak ere izan ziren, eta nahiko genuke gure ondorengoak ere izatea. Gaztelaniaz badakigu, eta beste hainbat hizkuntza ere ezagutzen ditugu, baina gure hizkuntza euskara da. Euskarak egiten gaitu gu, eta guk egiten dugu euskara.

Baina Elgoibarren eta Euskal Herrian euskaraz bizitzea ez da erreza. Naturala beharko lukeena, trabaz jositako bidea da. Naturala beharko lukeena, erabaki kontziente bat bihurtu da. Euskaraz bizitzea erabaki pertsonala da, bai. Horregatik, noizean behin, esan egin behar dugu euskaldunak garela eta euskaraz bizi nahi dugula. Esan egin behar dugu Euskal Herria dela euskararen herria. Hemen ez bada ez dela beste inon izango, eta euskara galtzen bada denok galduko dugula. Euskaldunok bereziki, baina baita munduak ere.

Horretara goaz abenduaren 1ean Donostiara. Euskararen Herriko beste milaka euskaldun eta euskaltzalerekin bat egin eta euskaraz bizi nahi dugula esatera; euskaldunak garelako.

Eta Elgoibarren euskaraz bizi nahi dugunok asko eta asko garela badakigunez, autobusa prestatu dugu Donostiara joateko. Aniamatu eta eman izena azaroaren 29a baino lehen, Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen bulegoan.

Bizi euskaraz, euskarak egiten baikaitu euskaldun.

AEK euskaltegia, Bildu Elgoibar, CD Elgoibar, EA, Elgoibar Ikastola, Elgoibarko Izarra, Elgoibar-Arreiturre Institutua, Ezker Abertzalea, Gazte Asanblada, Haritz Dantza Taldea, Herri Eskola, IMHko Euskara Batzordea, MEKA Lanbide Eskola, Morkaiko ME, Sanlo EKT, Udal Euskaltegia eta Udaleko Euskara eta Kultura batzordeak ☪

San Martindarren peskizan (eta 2)

Duela lau asteko kontuaren segida da honako hau. Getariara ezkondu zen Jose Manuel San Martin Murua elgoibarraren senitartekoak topatu nahi genituen Elgoibarren. Bilaketak, erabatekoa ez bada ere oraindik, eman du fruitua. Badakigu haren anaia zaharragoak Santiago Luzio zuela izena, eta, itxuraz, Eibarrera ezkondu zela, eta han alaba bat izan: Rosario. Orain alaba horren peskizan hasi beharko dugu Eibarren.

Albiste hori emateaz gainera, eskutitz honek badu, hala ere, beste arrazoi bat: Elgoibarko udaletxeko bulegoko langileei eskerrak ematea, bilaketa-kontu hau dela eta eskaini diguten arreta, seriotasun eta arduragatik. Eskerrik asko, bereziki, Izaskun Urbietari.

Andres Alberdi ☺

Javier Nuñez Elgoibarko PPKo zinegotziari

Javier, ez dakit ulertuko duzun idazten dizudan hau (baiezkoan nago, baina, horrela ez balitz ere, norbaitek egingo lizkizuke itzulpen lanak). Denok dakigu *twitter* oso erreminta erabilgarria bilakatu dela azkenotan, eta pertsonen arteko harremana aldatzen ari dela (batzuek oraindik beldurra badiote ere), eta politiko asko tresna hau erabiltzen hasiak dira. Oso tresna erabilgarria eta baliagarria dela diot, jende askorengana eta oso azkar heltzea errazten duelako.

Baina kontuz ibili behar da idazten denarekin. Kritika politikoak onargarriak dira. Beti irudituko zait eztabaidagarriak direla (susmoetan oinarrituta badaude ere), kritika politiko hutsean gelditzen badi dira.

Baina, Javier, zuk aste honetan *twitter*ren egin duzuna eraso pertsonala izan da, eta hori ez diot inoiz inori onartuko. Zure hitzak dira: *“Pero Bildu demuestra una vez más que de honestidad y de honradez va muy escasa ...”*. Hori esan eta lasai gelditu?

Esan dizudan moduan, eta behin bakarrik esango dizut, ez diot inori onartuko nere zintotasuna zalantzan jartzea. Denborak pertsonak ezaguten laguntzen digu, eta kasu honetan uste dut, ideia politikoak alde batera utzita, zu ezagutzeko aukera berri bat eman didazula.

Besterik gabe, agur!

Jon Peli Uriguen ☺

Praileaitz

Pasa den asteko Praileaitz kobazuloaren gaineko ekitaldiek zapore gazi-gozoa utzi digute. Alde batetik gozoa, hizlarien eta jendearen parte-hartzea bikaina izan delako, azaldu den jende kopuruagatik baita erakutsi duten interesa eta mailagatik ere. Izan ere, galderen txandak hitzaldiak baino luzeagoak izatera ailegatu ziren.

Sorpresa polita hartu genuen igandeko ibilaldira etorri ziren 25 lagunekin, umeak eta aiton-amonak barne, euri, lokatz, sasi eta lur karstikoaren gorabeheren giro ederrean aurre egin baitzieten. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu Xabier Peñalver, Sonia San Jose, Jabi Castro eta partehartzaile guztiei. Denok geneukan helburu bakarra: gure ondare kulturala ezagutu eta zaintzea.

Bestetik gazia, arazoa hortxe segitzen duela erakusteko balio izan dutelako ekitaldiek. Praileaitzeko hainbat galeria lurrez beteta daudenez ez da ezagutzen noraino iristen diren eta babesgabe daude leherketen mendean. Kosta Legearen babesa 100 metrotik 20 metrora murrizteko asmoa betez gero, kobaren malda desagertzeko zorian izango da. Hau da, harrobiaren interes ekonomikoak kulturaren gainetik daude politikariak galeriarentzat kontrakoa esan arren.

Gainera, historiaurreko arte eraman-garriagatik oso ezaguna den Ermittia I kobaren kasuan, autopistak egin zion kraterraz gain, isileko induskariak koba ustiatzen ari direla *in situ* ikusi genuen. Dagokionari eskatzen diogu babes deza-

la ondarea behar den bezala.

Bukatzeko, ekintzak iragartzeko kartelak kendu zizkigun Udalak, gure esfortzua eta diru gastua biderkatuz. Etxeberria jauna, noiz utziko diozu adierazpen eskubidea zapaltzeari?

Okil Beltzak ☺

OHARRA

Abenduaren 7an ez dugu **BARREN** astekaria kaleratuko, beraz, zerbait argitaratu nahi izanez gero azaroaren 28rako ekarri beharko duzue informazioa, hilaren 30eko alean argitaratzeko.

Bihar arte egongo da pintxo erotikoak dastatzeko aukera

Hamabi tabernak hartu dute parte



'Paquete escocido' izena dauka Gabiko pintxo erotikoak.

Atzo arratsaldean hasi zen pintxo poteo erotikoa, eta bihar gauera arte egongo da pintxo horiek dastatzeko aukera. Herriko hamabi tabernak egin dute bat Carlos Lahozen ekimenarekin: Gabi, Orbea, King-Kong, Maren, Viento Sur, Gran Siglo, Txarriduna, Maala, Pilon, La Perla, Gautxo eta Salento. Pintxoari laguntzeko Cojón de gato ardo beltza edo Chardonnay lxeia ardo zuria egongo dira aukeran. Pintxo eta ardoa 2,5 euroan jarriko dituzte salgai. Eta afal ondorenean, *Sex on the beach* edana probatzeko aukera eskainiko dute Sua, Gabaz eta Karobi taberneak. Baina egitasmo hau tabernetatik haratago eraman dute, eta herriko hainbat establezimenduk ere parte hartuko dute, sexua, umorea, ardoa eta janaria uztartzeko ekimenean. Hortaz, eskaintza eta deskontu bereziak eskainiko dituzte ondorengo establezimenduek: Gabi jatetxeak, Txarriduna hotelak, Viento Sur gastrotekek, Noa eta B&A estetika zentroek, Pitxintxu eta Gorostiza liburu dendek, AN eta Nu-Van dekorazio dendek, Kala loradendak, Surya eta Kemen belardendek eta Skandalo mertzeriak. Horrez gain, Donostiako Pitilingorri sexu dendak tailer erotikoa egingo du. Parte hartzaileek formula erotikoa idatzi beharko dituzte, eta formula onenak saski erotikoa jasoko du opari.

“Aurrekontu partehartzaileak” lantzeko bilera antolatu du Bilduk

BilduElgoibarrek “aurrekontu partehartzaileak” lantzeko bilera antolatu du astelehenerako. Aurrekontuak “zenbakiak baino askoz gehiago direla” uste du BilduElgoibarrek, eta horregatik aurrekontuak herritarrekin aurrez-aurre landu nahi ditu. Herritar guztiak deitu dituzte bileran parte hartzera, haien iritziz herritar guztiek daukatelako zeresana. Bilera 19:00etan hasiko da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Kontsumo arduratsuaren feria egingo dute bihar Elgoibarren

Hileko azken zapatuko feriarekin bat egingo du bihar Elgoibarko kontsumo iraunkorraren eta arduratsuaren feria. Hirugarren urtea du aurten kontsumo arduratsuaren feria, eta Belaustegi jatetxeko Josu Mugerzak eskainiko duen sukaldaritza tailerra izango da aurtengo berrikuntza nagusia. Baseriko produktuek eskaintzen dituzten aukerak ezagutzera emateko, bi pintxo prestatuko ditu Mugerzak sasoiako produktuekin: aza kurruskaria Idiazabal gaztarekin eta barazki wok-a intxaur eta sagarrarekin. Sasoiako produktuen bidez gastronomia sustatu, eta bide batez, elikagai horiek gure osasunari egiten dioten onuraren berri eman nahi dute antolatzaileek. Guztira, 500 pintxo egingo ditu Mugerzak. Pintxo horiek prestatzen ikasteko aukera izango dute herritarrek, eta baita, jakina, dastatzeko ere. Horretarako, baina, ezinbestekoa izango da baseritarrek jarriko dituzten saltokietan erosketaren bat egitea. Erosketa bakoitzeko txartel bat eskuratuko du erosleak, eta txartela pintxoengatik trukatzekeo aukera izango du gero. Hilabete honetako txosna, berri, Sanlo eskubaloi taldeak kudeatuko du, eta muturra eta kuitxoa izeneko pintxoak prestatuko dituzte, Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin.


Gastronomia eta gehiago

Askotariko postuak jarriko dituzte kontsumo iraunkorraren eta arduratsuaren ferian. Udalak, Debemenek, Miskik, eta Parrokiako misio taldeak nork bere postua jarriko dute, eta herriko ikastetxeek ere izango dute euren lekua zapatuan, Lekuederren. Herri Eskolak, Arreiturre Institutuak eta Ikastolak, esate baterako, bigarren eskuko produktuak (liburuak, jostailuak, imitaziozko bitxiak, apaingarriak...) salduko dituzte.



Lekua **Pilarreko egoitza**

“Pilarreko proiektua geldi dago, eta are gehiago, ez dauka etorkizunik, Gipuzkoako Diputazioko Bilduren gobernuaren utzikeriagatik”, salatu du Javi Nuñez Elgoibarko PPko zinegotziak. “Kea saltzea” leporatu dio Bilduren gobernua-ri. “Krisia hartzen dute aitzakiatzat gizarte obra bat gelditzeko, baina egin nahi ez dutena ezkutatzeko aitzakia baino ez da hori”, gaineratu du. Era berean, EAJri ere kargu hartu dio, “neuririk ez hartzeagatik”. “Etxeberria jaunak nahiago du Bildu otzan eta esaneko bat izatea aldamenean, udal gobernu benetan proiektu hori babesten guenenokin osatzea baino”.



Izena **Hekimen, euskal hedabideen elkarte**

Bi urteko prozesu baten ostean, euskarazko hedabideen sektoreko 50 eragilek, tartean BARREN aldizkariak, Hekimen, Euskal Hedabideen Elkarte, sortu zuten eguaztenean Donostian. Elkarreak euskara hutsezko hedabideen arteko elkarlana bideratzea eta kanpoko eragileen aurrean solaskidetza bateratua eramatea ditu bere helburuen artean, beti ere euskararen hiztun komunitateak behar duen eremu komunikatiboa indartzeko asmoz. Beti pentsatu izan da euskararen komunikazio esparrua txikia dela, ahula eta hauskorra. Eta bada, hein handi batan. Baina, aldi berean, asko gara eta pertsona askorengana iristen gara. 600 bat langile gara sektorean, eta ehunka mila pertsonara iristen gara.

Euskal Herri euskalduna nahi badugu, komunikabide esparru indartsua ezinbestekoa da. Administrazioa, hezkuntza eta hedabideak zutabe funtsezkoak dira hizkuntza garapenean. Besteak beste horretarako sortu da Hekimen, unibertsitateak, instituzioak eta hedabide publikoak bilduko dituen behatokia. Ikerketa jorratuko duen behatokia, teknologia berriak, audientzia eta beste hizkuntzetako esperientziak aztertuko dituen. Bizi dugun egoera gaitzari bakarrik baino elkarrekin hobeto erantzungo diotelakoan batu dira Hekimenen barruan sartu diren eragileak.



Elkarretaratzea, emakumeen kontrako indarkeria salatzen

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna da azaroaren 25a, eta Elgoibarko Udalak bat egin du egun horrekin. Hala, elkarretaratzea deitu du azaroaren 26rako. Kalegoen plazan izango da elkarretaratzea, 19:00etan. Era berean, Udalak jakinarazi du sexu erasoak jasaten dituzten emakumeenganako arreta hobetzeko, tokiko jarduerak eta erakundeen arteko koordinazio protokoloa onartuko dutela azaroaren 29ko Osoko Bilkuran. Gai honi lotuta, emakumeentzako autodefentsa ikastaroa, Amodio hilgarriak tailerra, genero indarkeriaren prebentzioa sare sozialetan hitzaldia eta ipuin kontalari baten saioa antolatu dituzte. Gaztelekuan, bestalde, erakusketa antolatu du dute eta domekara arte egongo da ikusgai.

‘Gure seme-alaben heziketa gizartera begira’ hitzaldia abenduaren 1ean

Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak *Gure seme-alaben heziketa gizartera begira* hitzaldia antolatu du abenduaren 1erako. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 11:30ean. Hitzaldi irekia da, eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Mina arintzeko ikastaroa antolatu du Defibel elkarteak abendurako

Defibelek, Fibromialgia eta Astenia Kronikoa dutenen Debarrenako elkarteak, EFT liberazio emozionalerako eta mina arintzeko teknikak izenburuko ikastaroa antolatu du abenduaren 5, 12 eta 19rako. Ikastaroa doan izango da, Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 17:00etatik 19:30era. Informazio gehiagorako: 943 700 828 edo asoc.defibel@gmail.com. Iñaki Figueiredo EFT formatzaileak emango du ikastaroa.

alex txikon

Eskalada panel bat. Trontzaleku bat. Slackline zinta bat mendian. ESKIA. Euskal Herriko ikastola bat. Gorbeia. Leku asko dira egokiak Alex Txikon elkarrizketatzeko. Ezinbestean, baina, mendian jarri digu hitzordua. Lemoarra, igeltseroa, alpinista, jausilaria, euskaltzalea eta, batez ere, Euskal Herri zalea. Alex Txikon da. Hori guztia, eta aldi berean “ezer ez”. Denean eta ezertan ez dabilela iruditzen zaio askotan.

Ainhoa Lendinez

“Ia edozein lekutan egon naiteke gustura. Baina Euskal Herrian bezala, inon ez”

Noiztik datorkizu mendizaletasuna?

Lemoan futbolean ibiltzen ginen gaztetan, baina 14 urterekin eskalatzen hasi nintzen. Eskolatik piper egin eta mendira joaten nintzen.


30 urte, eta 10 zortzimilako. Ia-ia ezinezkoa dirudi.

Bai, lehenengo gure inguruko mendietara joaten hasi nintzen. Nahiko ondo moldatzen nintzen eta pixkanaka mendi garaiagoak suertatu ziren. 2002an joan ginen lehenengo Pamir mendikatera. Orduetik ia urtero joan naiz zortzimilako batera. 2003an Broad Peakera. 2004an, Makalu, K2 eta Cho Oyu. 2005ean, Makalu eta Lenin. 2006an eta 2007an, Shisha Pagma. 2008an Dhaulagari eta Manaslu. 2009an Kanchenjunga eta Shisha Pagma. 2010ean Annapurna eta Shisha Pagma. Eta 2011n Gashembrun I, II eta K2.

Hori guztia entzunda. 14 zortzimilakoak, bai?

Oraingoz ez da nire asmoa. Udaberrian Kanchenjungara joatea gustatuko litzaidake eta udan, Trango dorreetara eta K2ra. Baina 14 zortzimilakoena ez dakit. Euskal Herrian Juanito izan zen lehenengoa eta Alberto Iñurritegi bigarrena. Iñaki Ochoa eta Felix ateetan geratu ziren. Orain azkena Edurne izan da. Euskal Herrian hiru milioi biztanle gaude eta herrialde txiki honetan hiru daude jada 14 zortzimilako egin dituztenak. Guztira, munduan, 40 bat egongo dira zerrenda horretan, eta nire ustez, Euskal Herriatik hiru egotea, nahikoa da ez? Dena den, egia da fin eta gustora nabilela mendi garaietan eta baliteke ziklo hori ixteko eguna iristea, eta horretarako, proiektu hori bete behar izatea. Baina orain ez. Orain egunez egun bizi naiz eta ikusiko da.

Plaza-gizona zara zu. Zer daukazu apustuekin?



Lemoatik Zizur Nagusira oinez joan zen Alex. Antzinako transhumantzia gogoratu, hiru egun oinez egin ostean, urriaren 3an Zizur Nagusiko San Fermin ikastolara iritsi zen Alex 42 ardirekin. Nafarroa Oinezeko ekimena izan zen.

(barrez) Bada, gipuzkoarrek beti irabazten didatel! Gustatzen zaizkit erronkak. Bi apustu jokatu ditut, eta biak galdu, Azpeitiko zezen plazan. Bigarrena hiru modalitatekoa izan zen. 30 urte ziren ez zela halakorik egiten; aizkoran, harri-jasotzen eta korrika aritu ginen. Gogoan daukat nola sortu zen apustua; astearte batean Zelairen etxera joan nintzen, zilindro zaharra edo kubikoa, edota ehun kilokoa altxatzen nuen probatzera. Nik bularreraino altxatu nuen, eta buelta eman nion juxtu-juxtu. Halako batean, goraino altxatu nuen, baina indarraren indarrak airean atera nintzen, harria lurrera erori eta... desastre. Hurrengo egunean Euskadi Irratian elkarizketa neukan eta han jo nuen erronka. Horrekin zer esan nahi du dan? Nik banekien egun horretan harria ondo jaso ez arren, gai nintzela harri hori jasotzeko. Zelaik ia zorotuta nengoen esan zidan, baina larunbatean jatetxe batean ginen denok apustua lotzen. Ni euskalduna naiz, nire herria asko maite dut, eta hemen herri kirolak oso garrantzitsuak dira. Erronka hauetan besteen aurka baino gehiago neure buruaren aurka aritzen naiz gehiago. Burugogorra naiz eta lortu nuen, denbora polita egin nuen eta apustua amaitu. Ni oso aizkolari txarra naiz, baina burugogorra ere bai, eta lan luzeak egin ditzake. Azkenean denbora polita egin nuen eta apustua amaitu.

Hurrengo erronka?

Gaurko eguna. Nire ustez erronkak egu-

nez egun datoz. Egune-ro saiatzen naiz bizitzen azken eguna izango baltiz bezala. Base-jauzia probatzen ari naiz azkenaldian eta horrek, esaterako, bizirik sentiarazten nau. Bihotz taupadak topera jartzen dizkit. Listua ere ezin irentsi aho barruan. Salto egiten duzenean ez dakizu zer gertatuko den, edozer gerta daiteke. Eta nire ustez horrela bizitzea interesgarria da. Intentsitatearekin bizitzea. Azkenean neure bizitzari nik ematen diot intentsitate hori. Beti korrika atzera eta aurrera, eta beti gauza asko egiten. Badakit zerbaitetan maila polita emateko gauza bakarrean zentratu beharko nukeela, baina oraingoz nik erabakitzen dut zer egin, eta horrela pozik bizi naiz.

Eta gehiago nahi izate horrek badu mugarik?

Egia da bai, beti nahi dugula gehiago. Baina bestalde, erabakiak hartu behar direnean, hainbat egoeratan erakutsi dut badakidala ezetz esaten. Aurtengo neguan, esaterako, oso ondo nengoen prestatuta Gashembrun I igotzeko. Bederatzi ordutan igo nintzen 5.000 metrotik 7.000 metrora. Gora iritsi eta ezin nuen gehiago. Leher eginda nengoen, eta ezetz esan nion tontorrari. Eta eskerrak, hiru taldekide han desagertu ziren eta. Nire ustez ez genuen akats taktikorik egin, baina arrisku puntu hori dagoenean norberak du bere buruaren ardura eta neur-tzen jakin behar du. Nik uste dut era-

kutsi dudala badakidala ardura hartzen, eta erabakiak hartzen. Dena den, bai, egia da batzuetan gehiago nahi dugula eta egin beharko ez genituenak egi-



ten ditugula. Base-jauzian adibidez ikasten ari naiz oraindik, eta akatsak egin ditut. Zerbait jauzi ez nituen egin behar. Eskailerak hirunaka igotzen ari naiz, arrisku gehiago ari naiz hartzen.

Asko entrenatzen zara?

Nahi baino gutxiago, zeregin asko ditudalako. Ni zoriontsu naiz edozein egunetan Gorbeara igota. Jendeak musika-kaskoak eramaten ditu mendira. Nire ustez, musika autotan, etxean edo tabernan entzuteko da. Ni mendira animaliak ikustera joaten naiz, bu-ruari bueltaka, korrika, nire munduan. Asko gustatzen zait bai.

Zure leku kutuna?

Momentuaren eta konpainiaren arabera bat edo beste aukeratuko nuke. Euskal Herrian leku zoragarriak dauzkagu: hasi Nafarroako Sakanatik, Baztan pasata. Bizkaiko Urdabai, Gipuzkoan eta Araban ere bai. Iparraldean oso paraje ederrak daude, eta dene-tan ditut oso oroitzapen onak. Egun pozik eta eroso bizi naiz Lemoan, baina lekuz aldatu beharko banu ez nuke arazorik izango. Hala ere, gauza bat daukat argi: Euskal Herrian bezala, inon ez.

Sekretu bat?

Gosaritarako *digestive* galletak txokolatetzko zerealekin nahasi, eta esnetara bota. Hori janez bizi naiteke.

Zoriontsu zara?

Bai, Oso positiboa naizelako eta irribarrez bizi naizelako. Baina gauza asko aldatu behar ditut neure bizitzan.

Zure burua, hitz batean.

Txikonkeriak egiten (barrez).



Slackline: Azkenaldian modan jartzen ari den kirol honek oreka eta autokontrola hobetzen laguntzen omen du. Mendizale askok lantzen dute, eta Alex ere horretan ari da. Argazkian, Ereñon prestatutako zinta.



Unai
Arrieta

Duela egun batzuk, Zuhaitz, *Correos re- parte sonrisas a los niños* ekimenaren baitan *Parasos sin fronteras*-ek Logroño-ko Iregua adingabeen babes zentroan burutu zuten emanaldi batean parte hatu nuen zenbait talde-
kiderekin batera. Zentro honetako ikasleen ondoan arratsalde ederra pasa-

tu genuen, eta barre asko egin genuen pailazoan txorakeria, txiste eta akrobaziekin. Ordu pare batez tentsioak askatu, kezkek alde batera laga eta erabat erlaxatu ginen. Aspaldian ahaztua neukan zer zen horrenbeste barre egitea.

“Jakín dut zure kontzertuetan barre asko egiten dutela azkenaldian”

Adituek diotenaren arabera, barrea tresna sendagarri ahaltsua omen da. Barre-algarek gorputzeko sistema immunologikoa indartzen dute, eta tentsioek sor ditzaketen hormonak gutxitzen dituzte. Estasiaren antzeko zerbait eragiten omen du barreak: bizitasuna eta energia eragin eta garunaren aktibitatea areagotu. Estresaren eta tristeziaren kontrako estimulu eraginkorra da. Ikerketa zientifikoek baieztatu dutenez, umorearen erabilera egokiak lan munduan ere eragin positiboak sorraz ditzake. Eragin horiek enpresentzako onurak eta mesedeak dakartzate beraiekin: langilearen osasuna eta gaitasunak hobetzen ditu, motibazioa areagotzen du, berrikuntza eta sormena sustatzen ditu, eta lan-taldea kohesionatzen du.

Askotan iruditzen zait, Zuhaitz, ez letorkigukela batere gaizki gure entrenamenduetan horrelako osagairen bat sartzea. Profesionalizazioak, emaitzaren bilaketa itsuarekin batera, kirolaren alderdi ludikoa ahaztera garamatzala iruditzen zait. Eta kirol-errendimenduak ere emozio positibo horiek behar-beharrezkoak ditu. Jakín dut azkenaldian zure kontzertuetako ikus-entzuleek barre asko egiten duela.



Zuhaitz
Gurrutxaga

Aupa, Unai. Barre egiteko gero eta arrazoi gutxiago dauden garaiotan, serio eta kezkatuta dabil jendea. Langabezia, ordaindu ezineko hipoteka etabarrek negargura eragiten dute han-hemen.

Beti pentsatu izan dut arazo batek 24 orduz kezkatuta gaituenean, pixkanaka, egunean orduak kendu behar zaizkiola buruhauste horri.

Deskonektatu, gaur ordu pare bat, bihar hiru eta horrela progresiboki. Ez gaitezen eguneko minutu guztietan preokupazio horren gatibu izan. Halako kasuetan nik neuk leku askotan aurkitzen ditut ihesbideak. Film on bat, partidaren bat, gustuko kontzertu bat... edo urrutira joan gabe, lagunarte goxoan barre apur bat egitea. Sarri ez dugu askorik behar izaten barrez lehertzeko, edozein egoera absurdok eragin diezagukelako algarra. Ordea, espreski barre eragitea helburua duten pailazo, komiko nahiz aktoreen lana ez zait batere xamurra iruditzen.

“Zinez diotsut aparteko satisfakzioa dela ikusentzuleen irriak aditzea”

Eman ohi ditudan kontzertuetan era akzidentalean giro komikoa sortu izan da sarri. Ez da beraz, hasiera batean behintzat, nik bilaturiko zerbait izan jendea barrez jartzea. Baina zinez diotsut, Unai, aparteko satisfakzioa dela ikusentzuleen irriak aditzea. Hasteko, eta nahi ala ez, nire emanaldietan jendea gustura egon den edo ez neurtzeko termometroa horixe delako, eta bestetik, batek baino gehiagok gu entzuten ordu betez deskonektatu ahal izan duenaren usteak gustura sentiarazten nauelako.

Honen harira, bakarriketa bat aurkeztuko dut abenduaren hasieran, eta noski, Unai, gonbidatuta zaude, barre pixkat egitera. Saiatuko naiz behintzat barrea eragiten.



ESKERTZA

LEONISA ORODEA PEREZ

2012ko azaroaren 19an hil zen, 80 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Erretratu zaharra



1958

Aste honetako erretratu zaharra Fernando Eizagirrek ekarri du BARRENERA. Irureta tabernan aterata dago argazkia, eta ikusten den bezala, gizon horiek ospakizun handiren bat egin zuten egun hartan. Gogora ditzagun zeintzuk diren umorez eta pozik ageri diren gizonezko horiek:

Zutik, ezkerretik eskumara: Balerio Musillo (†), Eugenio Gonzalez, Heriberto Medina "Tximi", Moka (†), Pedro Artola, Panizo (†), Erretxindi, Antonio Mendi (†), Fernando Eizagirre "Ronki", Agustin Artola (†), Pedro Aginako, Sangrador (†), Luis Ondarza (†), Txanbolin anaiak (txistulariak). **Eserita, ezkerretik eskumara:** Charles, Jose Maria Armendariz (†), Lorenzo Zubiaurre, Jose Rezo-la (†), Patxi Irureta, Luis Fernando Astigarraga "Porru", Ricardo (†), Octavio Calles, ezezaguna, Joseba Zulaika "Ondarru", Fernando Ansola (†), Julian Abio, Jose Luis Epelde "Mutriku".

ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENEan argitaratzeko
erretratu zaharrak
baldin badituzu,
eskertuko genizuke
gure erredakziora ekartzea.
Nafarroa Plaza 2, behea.
943 744 112 (Ainhoa)


B

BARREN

MENDAROARRAK INDARREAN

Kontzezio Azoka egunerako egitaraua lotzen dihardu Mendaroko Udalak, eta lotutako ekintzen artean bada bat dagoeneko oihartzun handia izan duena herrian: gizon probak. Mendaroko zortzi laguneko mutil talde bat gizon probetako Gipuzkoako txapeldunen kontra lehiatuko da, 800 kiloko harriarekin (abenduaren 8an, 18:00etan). Mendaroarrak estreinako ariko dira gizon probetan, baina gogotsu heldu diote erronkari. www.elgoibarren.net atarian esegi ditugu argazkiak eta azkeneko entrenamenduko bideoa.

Ainara Argoitia



Mendaroko gizon probetako taldea Kalbarixoko p

Azaroaren 18, domeka. Kalbarixoko gaina (Mutriku). Kontzezio Azoka egunean gizon probak egiteko ideia egosi zen lekuan bertan dira batzekoak harriari tira egin behar dioten zortzi mutilak: sei mendaroar eta bi mutrikuar. 11:00etarako jarri dute ordua, eta poliki-poliki ari dira agertzen. Taldeko batzuek hilabete inguru daramate entrenatzen, baina zortzirek batera entrenatzen duten bigarren aldía da gaurkoa, eta bada ikusmina Kalbarixoko probalekuan. Erronka eguna gerturatzen ari delako-edo, jarraitzaile ugari batu dira gaur. Herri kiroletako Mendaroko katedra ere hantxe da, kronometroa eskuan. Eta kirolariak eurak ere “galako” jantzi dira. Kamiseta berde deigarriak egin dituzte erronka egunerako, gizon probetako Gipuzkoako txapeldunen kontra debutatzeak horrenbeste merezi

duelakoan. Talde itxura hartu dute.

Sasoiko mutilak dira guztiak ere, kirolari peto-petoak. Orain, hiru aste dituzte koordinazioa landu eta elkar hobeto hartzeko, baina gizon probetan behin ere ibili gabeak izateko, “itxura ona” hartu die Florentino Larrañaga herrikideak. Dena beharko dute. Izan ere, abenduaren 8an Berrobiko mutilak izango dituzte aurrez aurre, Gipuzkoako txapeldunak. Urriaren 12an jantzi zuten txapela berrobiarrek, Zizurkilen. 30 minutuko lan saioan, 81 plaza, zortzi zinta eta 2,35 metro egin zituzten, 950 kiloko harriarekin [Urretxu eta Orio sailkatu ziren bigarren eta hirugarren, 81 eta 79 plazarekin]. Mendaron, hala ere, 20 minutuko saioa egingo dute, 800 kiloko harriarekin. Hala aurreratu du Jon Salegi *Sarubek*, gizon probak antolatzearen arduradunetako batetik. “Fin ari dira mutilak. Besteak txapeldu-

nak dira, baina gogor hartuko dituzte”, bo-ta du.

“Hauspoa badute, indarra ere sobera, eta animoa gehiegi eta dena”, esan du Mikel Egaña *Illunbek* taldekideengatik. Bera da Mendaroko taldean herri kiroletan eskarmentu handiena daukana. Mutrikuko sokatira taldean tiratzen du, eta aurtan, estreinako, Urretxuko gizon proben taldean jardun du. Bera da Mendaroarren “fitxajea”. Gainerakoen artean, bada futbolari bat, bada bizikletan eta arraunean saiatutako beste bat, badira herri kiroletan ibili ohi diren hiru lagun, eta badira errepedean nahiz mendian korrika ibiltzen direnak. Urretxun lehenengo saioa egin zutenetik “asko” hobetu dutela dio Jon Salegik, eta bat dator Jurdan Ezenarro ere. “Lehen lan berdina egiten, doble nekatzen ginen”, aitortu du. Bigarren lerroan dauka lekua Ezenarro, eta

**20 minutuko lan-saioa egingo dute Mendaron, abenduaren 8an,
800 kiloko harriarekin.**



baldekuan, Kontzezio Azokarako entrenatzen.

sei-zazpi entrenamendu egin ditu dagoeneko. Gizon probetan aritzeko zer behar den galdetuta, garbi dauka: "Gogoa, nerbioa eta astoarena egiteko gogo pixkat".

Entrenamendu gehienak Kalbarixoko plazan egin dituzte (22,5 metroko plaza), baina Mendaron asfalto gainean jardungo dute, Herriko Enparantzan, Jubilatuen taberna paretik hasi eta Coviran parerainoko errepide zatian, 25 bat metroko "plazan".

Aurkari gogorra

Sallegik aitortu du Kontzezio Azokarako herriko bi talde sortzea nahi izan zutela hasieran, eta, berez, taldeak nortzuk osatuko zituzten ere zehaztu zutela, baina azkenean ez zuela proiektuak aurrera egin. Hala ere, aitortu du jendea "berotuta" ibili zela. Mendaroko Txirrindularitza Taldekoen denboraldi amaierako bazkariaren ostean, esaterako, Garagartzako harria mugitzen ere saiatu ziren batzuk, herri kiroletan ibilitakoan erronkari heltzeko gai ote ziren egiaztatzeko-edo. Gizon probetan lan handiena hankekin egin be-

har izaten denez, txirrindularitza taldekoen artean ere "talde sendoa" osa zitekeela uste dute mundu honetan eskarmentu handiagoa dutenek, baina plazara itxuran irteteko, ezinbestekoa da "ganoraz entrenatzea", eta hala, aurten talde bakar bat osatzea hobetsi dute.

Hasieran, Orioko nesken taldearen kontra lehiatzeko asmoa zuten, baina abenduaren 8rako beste konpromiso bat dute oriotarek, eta haien lekuan Berrobiko mutilen taldea etorriko da Mendarora. Etxekoek ez dute zehaztu zenbat plaza egiteko asmoa duten, baina 45eko langa gainditzeko moduan direla uste dute entrenamentuetan jarraitu dituztenek. Gaurtik erronka egunera hamabost bat egun dituzte, zuzendu beharrekoak zuzendu eta estrategia fintzeko. Ilusiorik ez dute falta, eta plazan dena eman-go dutela aurreratu dute. Ikuskizuna agindu dute. Orain, trabesak egiteko ordua da beraz. Egin apustu.



Bihar jokatuko da Alkortako Igoera

Bihar jokatuko da Alkortako Igoera. Karakateko Igoera jokatu osteko zapaturako antolatu du ohi dute urtero Alkortako Igoera, presoen alde, eta bereziki 197/2006 doktrina, *Parot doktrina*, salatzeko. Aurten, Mendaroko Herrira taldeak egin du deialdia. Goizeko 10:30ean irtengo dira korrikalariak udalaxe aurretik, eta Alkorta baserrira arteko aldatzetan neurtuko dituzte indarrak. Guztira, 4,7 kilometroko ibilbidea da, asfaltoan. Antolatzaileek aurreratu dute hiru sari izango direla: txapela eta garai-kurra irabazleentzat (gizonezkoetan eta emakumezkoetan), eta garaikur bana bigarren eta hirugarren sailkatzen direnentzako. Iaz, 22 lagunek parte hartu zuten, eta Iñigo Lazkano mendaroarrak jantzi zuen txapela. Errekorra ezarri zuen gainera, Joseba Plazak 2008an egindako denbora [20:43] hemeretzi segundoan onduta [20:24ko denboran egin zuen Lazkanok]. Lazkanoren atzetik Iñigo Lariz eta Iñigo Ortuoste sailkatu ziren, 21:02 eta 22:19ko denborekin hurrenez hurren.



Izenemateak bihar bertan egin behar dira, irteeran, lasterketa hasi baino orduerdi aurretik, bi euroren truke. Lasterketa bukaeran, hamaiketako banatuko dutela jakinarazi dute antolatzaileek Alkortara igotzen diren guztientzat.

Gabonetako euskarazko ipuin lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak

Urtero legez, gabonetako ipuin lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak Debabarrenako gaztetxoentzako. Hiru sail izango dira. L.H.ko 5. eta 6. mailakoek gutxienez orrialde bat eta gehienez bi orrialdeko lanak aurkeztu beharko dituzte. D.B.Hko 1. eta 2. mailako ikasleek, berriz, gutxienez bi orrialde eta gehienez lau orrialdekoak, eta azkenik, gutxienez lau eta gehienez sei orrialdeko idazlanak aurkeztu beharko dituzte D.B.Hko 3. mailatik aurrerako ikasleek. Lan guztiak euskaraz izan beharko dira, eta aurrez beste inon argitaratu gabeak. Idazlanak aurkezteko azken eguna abenduaren 7a da, eta sari banaketa abenduaren 24an egingo dute, eguerdian, Mendaroko frontoian. Informazio gehiago nahi izanez gero: www.mendaro.net.

Angel San Martin organo-jolea omenduko du Mendaroko abesbatzak

Berezia izango da domekan Azpilgoetako elizan ospatuko duten meza nagusia (12:00). Izan ere, Mendaroko abesbatzak eta parrokiak Angel San Martin organo-jolea omenduko dute, "urteetan egindako lanagatik". 80ko hamarkadan hasi zen organoa jotzen Angel San Martin, eta Anjel Bazterretxea parrokoaren esanetan, ordutik gaur arte hutsik egin gabe parte hartu du Mendaron egin dituzten elizkizunetan. "Erraz esaten da, baina Angelek inoiz ez du hutsik egin. Monjetan, Azpilgoetan, Garagartzan... Elizkizun nagusi guztietan jo du organoa, baita hiru txandatan ere, eta nik neuk ez daukat egin duen guztia eskertzeko hitzik".

Hitz onak baino ez ditu izan Bazterretxeak San Martinentzako: "Ez dauka musika ikasketarik, baina bistan denez, oso trebea da musikarako. Berreko zerbait du. Belarri onekoa da, eta ikusgarria da zer nolako abilezia daukan pieza bat behin bakarrik entzunda organoarekin jotzeko". San Martinen aurretik, bi organo jole zeuden Mendaron: Lucio Berasaluze Garagartzako parrokiari eta Jesus Mari Castañares Azpilgoetan, eta haien lana betetzen du orain berak. "Parrokiarentzako laguntza handia da, organoak asko jantzen dituelako gure ospakizunak", nabarmendu du.



KEU AGIRRETxea

Musikaria



Gitarra bortitz astinduz hasi zen Keu Agirretxea Etsaiak taldean, baina orain, formatu akustikoan eskainiko du kontzertua Elgoibarren. Mikel Arakistain baxujolea izango du lagun, eta bien artean *Denbora vs. Kantuak* diskoko abestiak aurkeztuko dituzte. Domekan izango da kontzertua, 19:00etatik aurrera, Kultur Etxeko sotoan. Sinuosek antolatu du emanaldia, eta sarre-ra hiru euroan jarri dute.

“Bizitzako gauza txikiak dira garrantzitsuenak, eta horiek abesten ditut”

Etsaiak eta UEK bezala izan zara aurrez Elgoibarren, baina orain Keu Agirretxea izenez etorriko zara. Zer eskainiko duzu domekako kontzertuan?

Kontzertu akustikoa izango da. Mikel Arakistain baxujolearekin etorriko naiz, eta azken bi diskoetako (*Une akustikoak* eta *Denbroa vs. kantuak*) kantak joko ditugu. Horrez gain, kanta berriak eta beste abeslari batzuen bertsiok ere joko ditugu.

Keu Agirretxearen alderik intimoena ezagutu dugula esan daiteke?

Bai, esan daiteke. Azken bi diskoak formatu akustikoan kaleratu ditut, abesti eta eritimo lasaiekin, eta esan daiteke intimoagoa dela.

Keu Agirretxea musika bortitza egiten ezagutu genuen, eta orain, aldiz, akustikoan diharduzu. Zer dela-eta aldaketa hori?

Askotan esaten didate hori, baina ni 1999an hasi nintzen disko instrumentalak egiten.

Etsaiak taldearekin atsedean hartzen genuenean nire lan instrumentalak argitaratzen nituen, beraz, estilo hau niretzako ez da guztiz berria. Beti ibili naiz talde gogorretako proiektuak eta nire proiektu akustikoak tartekatzen. Ez nuke esango aldaketa azken bi urteotan eman dudanik; bizi guztia daramat musika mota desberdinak tartekatzen. Bi alorretan sentitzen naiz oso gustura.

Gitarra jotzen hasi zinen, baina orain abestu ere egiten duzu. Nola sentitzen zara gurturago?

Aspaldian, egia esateko, abesten sentitzen naiz gusturoen. 14 urte nituela hasi nintzen gitarra jotzen eta 39 ditut! Atera kontuak! Urte pila bat dira! Abesten urte gutxiago daramat, baina oso pozik aritzen naiz. Ilusioz dihardut, gauza berriak probatzen eta erronka berriei aurre egiten.

Zeri abesten dio Keu Agirretxeak?

Nire abestietako letrak ez dira beste munduko ezer. Mikel Etxaburuk, Kirmen Uribek edota nik neuk idatzitakoak dira. Lagunen batek eginiko poemaren bat ere erabili izan dut tarteka, eta gai gehienak egunerokotasunari lotutakoak dira. Bizitzako gauza txikiak dira garrantzitsuenak, eta horiek abesten ditut. Gauza txikiak eta eguneroko sentimenduei buruz abesten pozik nago.

Urte asko daramatzazu musikan eta gauza asko egin dituzu. Zeintzuk dira etorkizunerako asmoak?

Elgoibarkoa izango da gure birako azken aurreko kontzertua, eta abenduaren 28an emango dugu azkena. Hortik aurrera material berria sortzen hasi nahiko nuke, eta datorren urtean disko berria kaleratzea gustatuko litzaidake. Musika umila eta lasaia egiten jarraituko dut.

Euskararen normalizazioan aro berri bat zabaltzeko apustua egin dute Topaguneak eta euskaldunon elkarteek

Elgoibarko Izarrak ere hartu zuen parte Kongresuan

Hiru urteko hausnarketei amaiera eman zioten zapatuan Topaguneak eta euskaldunon elkarteek mugimendua osatzen duten hainbat elkarteek, tartean Elgoibarko Izarrak, Bilbon, *Federaziotik Mugimendura* lelopean egin zuten kongresuan. Mikel Irizar Topaguneko presidentek esan zuen 30 urteko zikloa amaitu dela euskalgintzan, eta lorpen handiekin batera, “goia jo” izanaren sentsazioa ere utzi duela mugari horrek. Horrek, eta jarduera askoren bizi-raupena bera kolokan jarri duen krisi ekonomikoak, ziklo berri bati indartsu ekiteko beharra ekarri duela nabarmendu zuen horren harira. Ziklo berri horren hezurdura plangintza potente bat izatea proposatzen du Topaguneak, eta giharra, berriz, “euskalgintza berri bat”, gizartean eta erakundeetan ondo txertatua



eta bi esparruen arteko lankidetzaz sustatuko duena. Bihotzean, azkenik, euskal hiztuna kokatu du Topaguneak. Topagunea ziklo berri horri ekiteko “gertu eta go-

gotsu” dagoela nabarmendu zuen Irizarrek eta euskaltzaleak, gizarte eragileak eta erakundeak animatu ditu elkarlanean jardutera.

‘Bodologuak’ umorezko lanaz gozatzeko aukera izango da gaur zortzi Elgoibarko Herriko Antzokian

Bodologuak lana taularatuko du Txin-txetak Produksioak-ek gaur zortzi, azaroaren 30ean, Elgoibarko Herriko Antzokian. 20:30ean hasiko da saioa, eta sarrerak Servikutxa bidez, www.kutxa.es bidez edota 943 001 200 telefonora deituta erosi daitezke. Hala ere, egunean bertan ere erosi ahal izango dira, Herriko Antzokiko lehiatilan bertan.

Nork esan zuen euskalduna izatea erreza zela? Eta oporretara joatea mundiala dela? Zein kristori bururatu zitzaion elkarre gastronomikoak sortzea? Eta Fox Terrierrari txubaskeroa janztea?. Galdera horiei eta beste askori erantzungo diete Mikel Pagadizabal, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu aktoreek *Bodoguluak* umorezko lanean. Aski ezagunak dira hiru aktoreak. Pagadizabal *Wazemank*, *Noaoa*, *Uiiii* eta *Finlandia* saioetan agertu izan da; gainera, antzerkian, irradian eta zineman



ere aritu da. Lasak, berriz, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*, *Arriya* eta *Urte berri on, amona!* filmetan parte hartu du, besteak beste. Oparoa da, era berean, Aranbururen ibilbidea ere; *Yoyes*, *Aupa Etxebeste*, *Zeru horiek* eta *Euts!* filmetan azaldu da, eta bes-telako lanak ere egin ditu.

‘Euskaraz bizi nahi dugu’ lelopean egingo den manifestaziorako autobusa

Elgoibarko Izarrak eta herriko beste hainbat eragilek bat egin dute Kontseiluak abenduaren 1erako *Euskaraz bizi nahi dut* lelopean antolatu duen manifestazioarekin. Donostian egingo da manifestazioa, eta Elgoibarko Izarrak autobusa antolatu du Donostiara joateko. Autobusa 16:00etan irtengo da King Kongeko autobus geltokitik, eta interesatuek Elgoibarko Izarrako bulegoan edota komunikazioa@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzita eman dezakete izena. Eguenera arteko epea eman dute izena emateko (azaroak 29). Hizkuntza Gutxi-tuen Itunean jasotako konpromisoak betetzeko eskatuko dute Donostian, euskararen esparru nagusiak indartzeko: batetik, euskararen eza-gutza, eta bestetik, euskaraz bizi ahal izateko guneak.

Musika Bandaren eta Keu Agirretxearen kontzertu banarekin bukatuko dira Santa Zeziliaren omenezko ospakizunak

Elgoibarko Parrokiako Abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur iluntzean

Santa Zezilia egunaren harira, hainbat ekitaldi izango dira asteon Elgoibarren. Eguaztenean hasi zizuten musikarien zaindariaren omenezko ospakizunak, Inazio Bereziartua eskolako kalejira eta kontzertuarekin. Atzo, berriz, ikastolako umeen txanda izan zen. Kalegoen plazan batu eta handik ikastolara arteko bidea kantuan egin zuten gaztetxoek.

Gaurtik domekara ere izango da, baina, zertaz gozatua. Gaur, esaterako, Elgoibarko Parrokiako Abesbatzak kontzertua eskainiko du, 19:00etako meza ostean. Alaitz Urkiak zuzenduko du abesbatza, Juan Luis Agirrek joko du organoa eta Ander Simalek pianoa. Domekan, berriz, 10:00etan, kalejiran irtengo dira Elgoibarko Udal Musika Bandakoak, eta ondoren,



12:30etik aurrera, kontzertua eskainiko dute Elgoibarko Herriko Antzokian. Aurrez, bezperan, meza izango da San Bartolome parrokiari, 19:00etan, Udal Musika Bandako hildako kideen omenez.

Era berean, domekan, azaroaren 25ean, Keu Agirretxek kontzertua eskainiko du Kultur Etxeko sotoan, 19:00etatik aurrera. Sinuosen antolatutako kontzertua da, eta sarrerak hiru euroan jarriko dituzte salgai.

Praileaitz kobazulo inguruko ondarea babesteko eskatu dute hainbat elgoibartarrek



Arg.: Asier Etxaniz

Praileaitz kobazuloaz informatzeko Okil Beltzak taldeak antolatu duen aste-ari amaiera emateko, domekan kobazu-


loraino joan ziren 25 bat lagun. Praileaitzen sartzeari debekatua dute arkeologoak ez direnek, baina leize ingurua ezagu-

tzeko eta inguru hura nolakoa izan zen irudikatzen aukera izan zuten elgoibartarrek. Handik, giza aztarna gehiago topatu dituzten Ermitia kobazulo sarea ezagutzera joan ziren. Ermitia kobazuloan egindako zundaketetan arte eraman-garri asko aurkitu eta katalogatu duten arren, gaur egun kobazuloko sarrera ez dago itxita, eta hura bisitatzeko aukera izan zuten Okil Beltzakek egindako deialdira batu zirenek.

Ibilalditik “kezkatuta” itzuli direla ohartarazi dute antolatzaileek. Kezkatuta, Praileaitzen babes ingurua gero eta txikiagoa delako, eta Ermitiak behar lukeen besteko babesik ez duela. “Dena galdu aurretik, gure ondarea babesteko benetako neurriak behar direla ondorioztatu genuen guztiok”, azaldu dute.

Iñigo Larizek irabazi du orain arteko Karakateko Igoera jendetsuena

Iñigo Larizek irabazi du aurtengo Karakateko Igoera 28:20 denborarekin, eta iaz Oier Ariznabarretak ezarri zuen errekorretik hiru segundora geratu da. Hala ere, bere markarik onena (29:05) ondu du korrikalari elgoibartarrak, eta proba amaieran “pozik” zegoen Karakateko gailurrean. Errekorra, baina, partehartzaile kopuruan egon da, inoiz baino lagun gehiagok parte hartu baitu aurtengo edizioan: 95 lagunek. Emakumezkoetan Nerea Amilibia aiarra izan da onena (37:02), eta Ainhoa Lendinez lehen emakumezko elgoibartarra. Argazki gehiago, bideoa eta sailkapena ikusteko: www.elgoibarren.net.



Umeak eskubaloian murgiltzeko ekintzak antolatu ditu Sanlok

Abenduan eta urtarrilean egingo dituzte ekitaldiak

Umeak eskubaloian murgiltzeko hainbat ekintza antolatu ditu Sanlok abendurako eta urtarrilerako. Elgoibar, Mendara eta Debako umeen artean eskubaloia sustatzea da helburua, eta horretarako ikastetxeetara egingo dituzte bisitak datorren astean. LH3 eta LH4ko umeekin batuko dira, eta besteak beste, bideoak ikusi eta zenbait jolas egingo dituzte.

Ekintza bereziak

Abenduaren 6an eta 7an entrenamenduak egingo dituzte kiroldegian. Urtarrilaren 2an eta 3an, berriz, eskubaloia munduko entrenatzaile ezagunekin egingo dituzte entrenamenduak: Bera Bera taldeko Reyes Karrere eta Ereintza taldeko Jose Ignacio Altube izango dira entrenatzaileak. Urtarrilaren 4an Bilboko PINera egingo dute irte-



era, eta hango eskubaloia txapelketan hartuko dute parte. Azkenik, urtarrilaren 5ean eskubaloia partidak jokatu dituzte, kiroldegian.

Interesatuak abenduaren 3ra arte eman dezakete izena, kiroldegian (astelehena, eguazten eta barixakuetan, 18:00etatik 19:00etara) edo sanlola-txo@gmail.com helbidean.

Arkaitz Egañak hirugarren egin du Euskadiko Ehiza Xehe txapelketan

Zanbranan (Araba) jokatu zuten domekan Euskadiko Ehiza Xehe Txapelketa, eta Arkaitz Egaña elgoibartarrak hirugarren egin zuen. Ehitari elgoibartarrak lau eper bota zituen, Sol txakurraren laguntzaz.



Alpeetan egindako ibilaldiei buruzko hitzaldia eskainiko dute martitzenean Musika Eskolako auditorioan



Alpeetan egindako bi ibilbideren berri eman go dute martitzenean, Morkaikoren mendi emanaldien barruan. Batetik, Imanol Larrañagak eta Sylvia Sotorriok Chamonixetik Zermattera egindako ibilbidearen berri emango dute, eta bestetik, Mendikolore taldeko emakumeek Zermatt inguruan dauden aukera anitzak azalduko dituzte. 21:30ean hasiko da saioa, Musika Eskolako auditorioan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 – Arenas 3 (3. maila)
Ostadar 1 – Elgoibar 1 (Neskek)
Amaiak Bat 3 – Elgoibar 2 (Erreg.)
Anaitasuna 2 – Elgoibar 0 (Jub.)
Amaiak Bat 2 – Elgoibar 1 (Kad. A)
Elgoibar 2 – Urki 2 (Kad. B)
Eibar 8 – Elgoibar 2 (Inf.)
Elgoibar 3 – Aloña Mendi 4 (Aleb.)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak 20 – Oiarpe 22 (2. mailako nag.)
Lagunak 8 – Azkoitia 22 (2. mailako kad.)
Lagunak 12 – Arrasate 22 (2. mailako kad.)
Pala

Lagunak 12 – Altzotarra 25 (2. mailako nag.)
Lagunak 20 – Zarautz 25 (1. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Noto FS 6 – King-Kong Elg. 3 (Jub.)
Concepto Egile Elg. 5 – San Juan 2 (2.B)

ESKUBALOIA

Alcorta Elg. 33 – Anaitasuna 30 (Sen. mut.)
Tecnifuelle Elg. 32 – Basusta 18 (Sen. neskek)
Zarautz 23 – Beristain Elg. 25 (Jub. mut.)
Lauko Elg. 20 – Bera Bera 16 (Jub. neskek)
Astigarraga Elg. 26 – Bera Bera 25 (Kad. neskek)
Leizaran 20 – Txarriduna Elg. 32 (Kad. mut.)
Egia 42 – Pneumax Elg. 28 (Kad. mut.)
Aluminios Aleman 29 – Ikus Elg. 19 (Kad. neskek)
Pulpo 8 – Murgil Elg. 22 (Inf. neskek)
Zarautz 24 – Cometel Elg. 20 (Inf. neskek)
Aterpe Elg. 33 – Zarautz 9 (Inf. neskek)
Bankoa Elg. 35 – Arrasate 6 (Inf. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapateria, 24
10:00 Elgoibar – Ostadar (Inf. txiki)
12:00 Elgoibar – Lagunak (Kad.)
16:00 Elgoibar – Getariako (Erreg.)
18:00 Elgoibar – Ilintxa (Jub.)
Domeka, 25
12:30 Elgoibar – Mutriku (Neskek)
10:00 Elgoibar – Mutriku (Aleb.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapateria, 24
10:30 Pneumax Elg. – Aloña Mendi (Kad. mut.)
11:50 Cometel Elg. – Aiala (Inf. neskek)
13:00 Murgil Elg. – Aiala (Inf. neskek)
16:30 Ikus Elg. – Ordizia (Kad. neskek)
18:00 Txarriduna Elg. – Egia (Kad. mut.)
Domeka, 25
12:30 Beristain Elg. – Egia (Jub. mut.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Etxean zein ospitalean. Asteburuetan lan egiteko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **699 609 190**
- Bertako emakumea lan bila. Umeak edo nagusiak zainduz lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentzia onak. ☎ **629 144 188**
- Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Jardunaldi osoz edo egun erdiz. Gaez lan egiteko prest. ☎ **680 121 252**
- Emakumea lan bila: zerbitzari, sukalde laguntzaile, garbiketa lanak edo nagusiak zein umeak zaintzen egingo nuke lan. ☎ **608 474 923**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. ☎ **660 551 781**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Adin eta maila guztiak. Azterketa ofizialetarako prestaketa. Talde txikiak. ☎ **680 858 550 / 943 741 594**
- Magisterizan diplomatuak LH eta DBHko klase partikularrak emango lituzke. Ikasgai guztiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egin edo umeak eta adinekoak zaintzeko. Sukaldean lan egiteko ere bai. ☎ **605 720 298**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko. Esperientzia daukat, eta paperak legeez. ☎ **690 925 929**
- Emakumea lan bila: Pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia. Orduka lan egiteko prest. ☎ **633 843 512**

- Gizonezkoa lan bila: Gidari, mendiko lanetan eta biltegian esperientzia. ☎ **649 659 041**
- Emakumea lan bila: Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka eta asteburuetan ere lan egiteko prest. ☎ **699 232 823**
- Emakumea lan bila: Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **616 690 415**
- Mutila eskaintzen da lanerako: Lorezaintza, desbrozadora, polinizazio edo tasazio lanak egingo lituzke. ☎ **607 885 609**
- Emakumea lan bila: nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **681 065 683**
- Emakumea lan bila: nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **678 346 279**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Etxean zein ospitalean. ☎ **645 557 141**
- Mutila nagusiak zaintzeko prest. Etxean, ospitalean zein baserrian. ☎ **688 812 845**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Ordua, 8 euro. ☎ **638 884 104**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Baita garbiketak egin edota sukaldean lan egiteko ere. ☎ **943 176 256**
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan lan egiteko. Umeak zaintzeko zein beste edozein lan egiteko prest. ☎ **649 582 608**

ETXEBIZITZAK

- Obra berriko etxea salgai, San Bartolome 30ean. Etxearen banaketa aldatzeko aukera. San Bartolome kalera eta Plaza Txikira bistak. Galdetu Ferpi dendan edo ondoko telefonoan. ☎ **943 740 815**

- Pisu hartuko nuke alokairuan. ☎ **608 474 923**
- Pisu hartuko nuke alokairuan. Logela bakarrekoa, edo gehienez, bikoia. ☎ **695 743 405**


IBILGAILUAK

- Renault Traffic furgoneta salgai. 2006koa. Altxatzen den sabaia, bi ohe eta beheko ohea, berogailua, aurrealdeko toldoa... Egoera onean. ☎ **652 715 911**

BESTELAKOAK

- Ume karro bat oparitzen dut. Kapazoa eta aukialki ere bai. Bebecar ipod markakoa, gorria. ☎ **635 741 955 (Nere)**
- Lorituaneko aldapan belarritako bat aurkitu dut. ☎ **686 720 315 (Angeles)**
- Maclaren etxeko twin techno bikientzako aukialki salgai. ☎ **650 132 164**
- Ume aukialki, moisesa, trona, hamaka... salgai. Bakar-ka saldu daitezke, prezio onean. ☎ **676 899 604**
- Bi hilabeteko txakur kumeak oparitzen ditut. Sallo-bente bailarako Berdun baserrikoak. ☎ **676 075 137**

Jarri ezazu zure publizitatea gabonetako
BARREN astekarian edo www.elgoiBARREN.net webgunean
barren.publi@elgoibarkoizarra.com - Tel.: 943 743 703



• Zorionak, **Beñat**, asteazkenean 6 urte beteko dituzulako. Muxu asko, aittittaren partez.




• Zorionak, **Asier**, bihar 11 urte beteko dituzulako. Muxu asko, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Elene**, gaur 2 urte egiten dituzulako. Muxu potoloak familiakoen partez, eta bereziki, Jakes eta Markelen partez.




• Zorionak, **printzesa**. Dagoeneko 4 urte! Muxu potolo bat, etxe-ko guztien partez.



• Zorionak, **tio Aitor!** Muxu potolo bat.



• Zorionak, **June**, 6 urte egiten dituzulako. Muxu handi bat, printzesa. Gurasoen eta Markelen partez.



• Zorionak, **Danel**, azaroaren 21ean 2 urte bete zenituelako. Maitasun handiz etxe-ko guztien, eta bereziki, Nerearen partez.



• Zorionak, **Maia!** Gaur 2 urte! Muxu asko, Unai eta Martinen partez.



• Zorionak, **Malen**, asteazkenean 7 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



Zorionak, **aittita Mauro**, atzo zure urtebetetzea izan zelako. Muxu asko, etxe-koen eta bereziki Paul, Lara eta Nastiaen partez.



• Hau marka, **Jonel** 1, 2, 3... 9 aldiz egin behar dizugu tira belarrik. Zorionak etxe-koen partez.



• Zorionak **etxe-ko piburrinari**, asteartean 10 urte bete zituelako.



• Patxo, patxo, muxu, muxu... Zorionak, **Nerea**, gaur 4 urte bete dituzulako. Etxeko guztien partez.




• Zorionak, **Paul!** Igan-dean 2 urteko! Muxu asko, familiakoen partez.



• Zorionak, **Oxel**, gaur zure eguna delako. Ondo-ondo pasa! Patxo handi bat, etxe-koen partez.



• Zorionak, **Izaro**, gaur 8 urte beteko dituzulako. Muxu asko, Lorea, Ander, Nadia, Nora eta bereziki Olatzen partez.



• Zorionak, **neska handil** Dagoeneko 5 urte! Besarkada bat denon partez, bereziki Haizea, Intza eta Malenen partez.



• Atzo gure poxpolik 3 urte bete zituen. Zorionak, **Olatz!** Muxu asko familiakoen partez.



• **Emiliano eta Lauren**, azaroaren 24an zuen ezkontzaren 50. urteurrena ospatuko duzue. Ondo pasa! Familiakoen partez.


AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:


Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Pastel goxo-goxo bat egiten ikasi nahi? Azaroaren 29an **Muruamendiarazeko obradorera irteera**. Izenemateak: 27ra arte

Igande honetan zine forum-a Gaztelekuan. **'No estás sola'** filma. Amaieran pelikula komentatu eta afari-merienda egingo dugu!



23 barixakua

Ikusentzunezkoa

21:30 Bideo forum

Haizeak antolatuta, bideo foruma eta kafea pastekin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. *Sólo mía* pelikula ikusiko dute.

24 zapatua

Extabaida

9:00 Sorturen eratze prozesua

Estreinako bilera egingo dute Sorturen Oinarri Ideologikoei buruz hitz egiteko. Kultur Etxeko sotoan.

Feria

9:00 Azken zapatuko feria

Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai. Sanlok jarriko du txosna, eta sukalde tailerra ere egingo dute. Kale Kantariek alaituko dute giroa. Kalebarren plazan.

Feria

10:00 Kontsumo iraunkorraren feria

Bigarren eskuko produktuak jarriko dituzte salgai, Lekuederren.

Meza berezia

19:00 Santa Zezilia

Musika Bandako hildakoen omenezko meza. San Bartolome parrokian.

25 domeka

Mendia

10:00 Mendi irteera

Elgoibar Ikastolako gurasoek antolatuta, Santangrazia egingo dute irteera.

Musika

10:00 Udal Musika bandaren kalejira

12:30 Udal Musika bandaren kontzertua

Santa Zezilia eguneko kontzertu berezia eskainiko dute, Herriko Antzokian.

1. *Suite sinfonica* (B. Adam Ferrero)
2. *La isla de las perlas* (P. Sorozabal)
3. *My way* (Revaux-Iwai)
4. *Gran jota La Dolores* (Tomas Breton)
5. *Songs of the wizz* (Quincy Jones)

Solasaldia

16:00 Zukgua prozesu eratzaillea

Laugarren solasaldia egingo dute, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Musika

19:00 Keu Agirretxearen kontzertua

Sinuosek antolatuta, kontzertu akustikoa eskainiko du Keu Agirretxeak. Kultur Etxeko sotoan. Sarrera 3 euro.

26 astelehena

Tailerra

17:00 Arte tailerra

Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Bilera

19:00 Aurrekontu partehartzaileak

BilduElgoibarrek aurrekontu partehartzaileen lehen bilera antolatu du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Kontzentrazioa

19:00 Emakumeenganako indarkeria

Emakumeenganako indarkeria salatzeako elkarretaratzea egingo dute. Kalegoen plazan.

27 martitzena

Tailerra

18:00 Literatura tailerra

Haizeak antolatuta, Udal Liburutegian.

28 eguaztena

Hitzaldia

19:00 Parkinson gaixotasunari buruzko hitzaldia

Deparkel elkarteko kideek Parkinson gaixotasunaren alderdi psikologikoei buruzko hitzaldia emango dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

ZINEA

'Lo imposible'

23, barixakua: 22:1
24, zapatua: 19:00/22:15
25, domeka: 19:00
26, astelehena: 21:30

'Shame'
(Ongarri zinekluba)

29, eguena: 21:30

OKINDEGIA

25 domeka: EIZAGIRRA



BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

23 Garitaonandia
24 Etxeberria
25 Etxeberria
26 Fernandez
27 Yudego
28 Zabaleta
29 Barrenetxea
30 Ibañez

Gauetz

22:00 - 9:00

Garitaonandia
Etxeberria
Barrenetxea
Yudego
Yudego
Garitaonandia
Barrenetxea
Barrenetxea

Urrian...

JAIOTAKOAK



Kalet Migales Garcia
Urriak 10
Valentin eta Alaine



Angkor Horrillo Diez
Urriak 9
Daniel eta Soraya



Aner Sanchez Gonzalez
Urriak 15
Aitor eta Vanessa



Gorka Marcos Garcia
Urriak 15
Juan Carlos eta Marta



Alex Gonzalez Rodriguez
Urriak 28
Ion eta Izaskun

Elai Ormaetxea Arroyo
Urriak 3
Jorge eta Cristina

Ruben Estevez Cuevas
Urriak 7
Jose eta Eneritz

Malen Gorroño Leibar
Urriak 6
Igor eta Leire

Ibon Rodriguez Kaltzorkorta
Urriak 12
Carlos eta Amaia

Naima Gurrutxaga Muñoz
Urriak 26
Inigo eta Neida

Maialen Arrillaga Salaberria
Urriak 27
Josu eta Nerea

Sara Yaagoubi
Urriak 28
Ismail eta Bouchra

EZKONDUTAKOAK

- Antxon Albizu eta Oihane Txurruka Urriak 6
- Jon Mekolalde eta Nerea de La Cruz Urriak 6
- Joseba Igartua eta Nerea Gil Urriak 6
- Roberto Perez-Cortes eta Erika Iriondo Urriak 13

HILDAKOAK

- Teodoro Conde Diez • 68 urte • Urriak 7
 Elisa Ruiz de Gauna Ibañez de Garaio • 86 urte • Urriak 8
 Marcela Tranche Porro • 105 urte • Urriak 9
 Josefa Astigarraga Egaña • 81 urte • Urriak 10
 Tomas Madinabeitia Elorza • 69 urte • Urriak 19
 Luis Maria Galarraga Arostegi • 61 urte • Urriak 19
 Jose Agea Santiago • 68 urte • Urriak 19
 Jose Ignacio Atorrasagasti Goiseru • 66 urte • Urriak 24
 Javier Galdos Astiazaran • 78 urte • Urriak 25
 Blas Garcia Gomez • 70 urte • Urriak 26
 Teresa Gabilondo Iriondo • 84 urte • Urriak 28

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA
eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK
NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak
Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 / (Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 744 112 telefonora edo bidalie-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora. Argazkia jartzeagatik 3 € ordaindu beharko dituzte Elgoibarko Izarrako bazkideek, eta gainerakoek, 4 €.

I. URTEURRENA



M^a CARMEN CHURRUGA ARRIZABALAGA

2011ko azaroaren 21ean hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroak 24, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



ELGOIBAR
SAN FRANZISKO

Azken etxebizitzak
%4ko BEZarekin

Etxebizitzak
trastelekuarekin

150.000 €-tik aurrera
+ BEZ

Bukatutako eraikina
Sukalde ekipatua

Orain BAI!



Informa zaituzte konpromisorik gabe

943 74 44 67



GABILONDO

AGENCIA INMOBILIARIA
C/ San Francisco 51, bajo.
Elgoibar

www.sukia.com

 **sukia**

Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.